



Ekainaren 30ean preso, errefuxiatu eta deportatuen aldeko eguna ospatuko da.

Urrunekoak hurbil izango dira jaietan

Presoak, errefuxiatuak eta iheslariak gogoan izango dira

Urtero bezala, preso, errefuxiatu eta iheslariak gogoan izango dira santixabeletan. Ekainaren 30ean, Preso eta Errefuxiatuen Egunean, «euskal preso politiko guztiak Euskal Herriratu eta euskaldun guztiok Euskal Herrian libre bizitzeko duten eskubidea errespetatua izan dadila» aldarrikatuko da. Era berean, «errepresaliatu politikoei dagozkien oinarritzko

eskubideak zein eskubide politikoak aintzakotzat hartu eta errespetatuak izan daitezela» eskatuko da. Hori dela eta, Amnistiaren Aldeko Batzordek hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako. Eguerdiko 12:00etan, *Preso eta iheslariak santixabeletara!* lelopean, kalejirak herriko kaleak zeharkatuko ditu, trikitilarien laguntzaz. Zikiro jana ere ez da

faltako, eta arratsaldean aginagatarak izango dira aurrez aurre herri kiroletan. Euskal Presoak Euskal Herrira sokatira taldea bitan banatuko da, eta bi taldeak lehian arituko dira. Proba asko ikusi ahal izango dira: txingak, lokotxak, zaku lasterketa, trontza, ingudea eta sokatira. Ondoren, gatazka politikoaren ondorioz espetxean edo erbestean diren gizon-emakumeak izango dira gogoan omenaldian. Baina, batez ere, Ramon Uribe, Xomorro eta Ximio, eta Xabier Miguel errefuxiatua izango dira omenduak.

Xomorro, Ramon, Ximio eta Jabi santixabeletan

Irati Miguel (Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kidea)

Garaia zen! Azkenean etorri dira hainbeste amestutako jaiak. Premia ere bazegoen, urteak luze jotzen baitu. Tartean jai egiteko hainbat aukera baldin badugu ere, egia da herriko jaiak beste berezitasun bat badutela. Giro herrikoia, alaitasuna, hilabeteetan ikusten ez ditugun herritarrek ikusteko aukera, juergatxo bat edo beste gure artean... hitz bitan: gure-gureak dira.

Prestaketak egiten hasi beharko dugu, egitarauari begirada bat eman, kamisetak atera, txosnak antolatu, preso eta iheslarietako omenaldia prestatu. Urterokoa. Urterokoa? Ba, aurtan berrikuntzak espero omen dira.

Herri bazkarian zikiro erreka, goxo-goxoa prestatuko digute, eta euren artean aspalditxo falta den Ximio izango omen dute komandante. Bertso saiorako berriz, ba omen dira hiru hilabete Xomorrok bere aulkia erreserbatu zuenetik, eta Txiribogara arrimatzen bagara katxi bat eskatzera, Ramonek berak aterako omen digu Jabik urtetan hemen hartzeko aukerarik izan ez duen katxia.

Gonbidatu bereziak, alajaina! Egia esateko, urtero izaten dira gure artean, fisikoki ez bada

ere, herritar asko eta askoren buru eta bihotzetan ibiltzen baitira han-hemenka dantzan, herri kirolak ikusten, garagardo bat hartzen edo manifestazioaren ibilbidea egiten.

Ametsetan hasita, amets ederra, ezta? Benetan gure artean izango ditugun egunaren zain, aurrea egiteko izugarri balio izaten dute antzeko ametsak. Baina errealtate gordinak atximurka galantak ematen dizkigu, eta berehala laino horietatik jaistera behartu. Izan ere, badakigu amets horiek errealtate bilakatzeko, guztiok gure ekarpena egin beharrean gaudela urte osoan, eta baita herriko jaietan ere. Ondo pasatzeko egunak baldin badira ere, ezin dezakegu erabat baztertu euskal herritar askoren egoera gogorra: sakabanaketa, torturak, urruntasuna, jipoiak, atxiloketak... Horregatik, egun hauek aldarrikapen gune bilakatuz, egoera hori plazaratu eta salatu behar dugu, behin betikoz benetako irtenbidea eman diezaiogun guztion artean.

Bitartean, Xomorro, Ramon, Ximio eta Jabi, ez zaitezte kezkatu. Aurtengo santixabeletan ere zuen lekua izango duzue, herritarrek zaretan aldetik eta, gainera, herriko jaiak bezalaxe, gure-gureak zaretelako.



Angulas Mayor s.l.
AGINAGAKO TXITXARDINAK
BEREZO HAZTEGIAK

TOKI-BERRI, z/g
 Tel.: 943 36 15 94
 Faxa: 943 36 25 73
 AGINAGA (Gipuzkoa)

Somera k., 25
 Tel.: 94 416 38 34
 94 416 69 01
 BILBO

USURBIL AUTOAK



Zumartegi Industrialdea - Aitzerraga kalea, 24 - ☎ 943 361 079


COOL BERRI S.A.L.



PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK:

- AIRE EGOKITUA
- AIREZTAPENA - ESTRAKZIOA
- BEROKUNTZA ETA OSASUN-UR-BEROA
- GARAJEEN AIREZTAPENA
- BERO-BONBA


Ondarzulo kalea, z/g - Osiñalde Poligonoa
20170 USURBIL (GIPUZKOA)
 Tel.: 943 366 243 - 943 366 368 - Faxa: 943 366 354



MIKEL ARRANDEGIA



1. Poligonoa - 1. Blokea
 ☎ 943 366 356 - **USURBIL**



TELESFORO ARDOAK

"Jai zoriontsuak opa dizkizue"

Nagusia, 35
 ☎ 943 361 220 - **USURBIL**

Mollarri kalea, 7
 ☎ 943 830 966 - **ZARAUTZ**